Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

Servicio Social de Base
Oinarrizko Gizarte Zerbitzua

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

# BASES DE LA CONVOCATORIA PARA LA CONCESION DE SUBVENCIONES A ORGANIZACIONES NO GUBERNAMENTALES PARA LA REALIZACION DE PROYECTOS DE COOPERACION AL DESARROLLO DE 2018

# DEIALDIAREN OINARRIAK, GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO, 2018an GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK EGIN DITZATEN.

## 1.- OBJETO DE LA CONVOCATORIA

Las presentes bases tienen por objeto establecer el régimen de subvenciones a conceder en régimen de concurrencia competitiva durante el año 2018 por el Ayuntamiento de Barañáin, a Organizaciones No Gubernamentales dedicadas al Desarrollo (O.N.G.D.) para la realización de proyectos o acciones de cooperación al desarrollo en alguno de los siguientes países:

- En África: R.D. del Congo, Tanzania, Kenia, Mali, Mozambique, Ruanda, Uganda, y Ghana.
- En Oriente Medio: Población Palestina.
- Población refugiada de Siria.

Estos proyectos tendrán como finalidad la lucha contra la pobreza y la promoción del desarrollo humano y se caracterizarán por ser intervenciones de carácter integral o de amplio impacto sectorial en el área o zona de actuación, e impliquen la participación activa de dichas comunidades/municipios y de sus instancias representativas en su proposición, gestión y ejecución.

El periodo de ejecución subvencionable será de un año.

En lo no previsto en la presente convocatoria, será de aplicación la ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Barañáin.

## 1.- DEIALDIAREN XEDEA

Hauxe da honako oinarri hauen xedea: Barañaingo Udalak 2018an zehar Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeei (GGKE) diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emateko erregimena ezartzea, herrialde edo herri hauetakoren batean:

- Afrikan: Kongoko ED, Tanzania, Kenia, Mali, Mozanbike, Ruanda, Uganda eta Ghana.
- Erdi-ekialdean: Palestinako biztanleak.
- Siriako biztanle errefuxiatuak.

Proiektu horiek pobretasunaren aurka eta giza garapena sustatzearen alde borrokatzea izanen dute helburu; esku-hartze integralak izanen dira, edo eragin zabalekoak jarduketaren eremuan edo gunean, komunitateek eta haien ordezkariek zuzeneko parte-hartzea dutelarik proposatze-, kudeatze- eta gauzatze-lanetan.

Diruz laguntzen den jarduera gauzatzeko epea urtebetekoa izanen da.

Deialdi honetan aurreikusirik ez dagoen guztian, Barañaingo Udalaren diru-laguntzaak emateko ordenantza arautzailean xedatutakoari jarraituko zaio.

## 2.- PRIORIDADES DE ACTUACION:

El apoyo municipal en esta materia se orientará a cofinanciar proyectos dirigidos a promocionar el desarrollo humano local **exclusivamente** de alguno de los siguientes sectores específicos:

- Actuaciones en favor de la infancia.
- Acciones que tomen en consideración la perspectiva de género en el desarrollo y la igualdad entre mujeres y hombres, valorándose especialmente aquellos proyectos implementados por las propias mujeres y sus

## 2.- LEHENTASUNEZKO JARDUNAK:

Udalak gai horretan emanen duen babesa bertako garapen humanoa bultzatzera bideratutako proiektuak kofinantzatzera orientatuko da, **soil-soilik** honako sektore zehatz hauetako batzuei:

- Haurren aldeko jarduketak.
- Garapenean generoaren egoera eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna aintzat hartzen dituzten ekintzak. Bereziki baloratuko dira emakumeek beraiek edo haien erakundeek abiarazitako proiektuak, beren

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

organizaciones, tendentes a la satisfacción de sus necesidades básicas y estratégicas, con el objetivo último de favorecer el denominado empoderamiento de las mujeres.

Se entenderán como **áreas de actuación a atender** por la presente convocatoria, las dirigidas a la cobertura de las siguientes necesidades básicas de los colectivos anteriormente mencionados:

- Educación (inicial, primaria, secundaria, formación profesional, y otras oficiales): acceso a la educación, mejora de las infraestructuras, alfabetización de personas jóvenes y adultas.
- Acceso equitativo y de calidad a los servicios de salud públicos. Promoción del acceso de las mujeres a los servicios de salud sexual y reproductiva. Contribución a la lucha contra la desnutrición infantil. Apoyo a iniciativas contra enfermedades de especial prevalencia. Acceso al agua y al saneamiento.
- Vivienda/ habitabilidad básica: edificación de bajo coste, condiciones dignas de habitabilidad en asentamientos humanos precarios.
- Proyectos locales de servicios sociales de atención a los sectores más vulnerables.
- Desarrollo rural sostenible: Promoción de la economía solidaria como alternativa, especialmente de iniciativas lideradas por mujeres organizadas. Contribución al desarrollo agropecuario sostenible que considere las prácticas culturales de cada zona. Apoyo a pequeños/as productores/as en la implementación de sistemas de producción ecológica. Apoyo para la puesta en práctica de iniciativas vinculadas a la soberanía alimentaria.

oinarrizko beharrak eta behar estrategikoak asetzekoak. Izan ere, emakumeen ahalduntzea bultzatzea izanen da azken helburua.

Deialdi honek **erantzun beharreko jardun-eremutzat** joko ditu arestian aipatutako kolektiboen oinarrizko beharrak asetzera zuzendutakoak:

- Hezkuntza (hasierakoa, lehen hezkuntza, bigarrena, lanbide heziketa eta beste batzuk, ofizialak direnak): hezkuntzako sarbidea, azpiegiturak hobetzea, gazteak eta helduak alfabetatzea.
- Osasun zerbitzu publikoak berdintasunez eta kalitatez eskuratzea. Emakumeek sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko zerbitzuak jaso ditzaten sustatzea. Haurren desnutrizioaren aurkako borrokan laguntzea. Prebalentzia berezia duten gaixotasunen aurkako ekimenei laguntza ematea. Edateko ura eta saneamendua izatea.
- Etxebizitza eta oinarrizko bizigarritasuna: kostu gutxiko eraikuntza, bizitzeko baldintza duinak gutxieneko beharrak asetzen ez dituzten giza kokaguneetan.
- Tokiko proiektuak, oinarrizko zerbitzuenak, sektore ahulenei erantzuteko.
- Landa garapen jasangarria: Elkartasunezko ekonomia, batez ere antolatutako emakumeek gidatutako ekimenak, alternatiba gisa sustatzea. Tokian tokiko kultur praktikak kontuan hartzen dituen nekazaritzako eta abeltzaintzako garapen jasangarriari ekarpena egitea. Nekazari txikiei laguntza ematea, ekoizpen ekologikoko sistemak ezartzeko. Elikadura burujabetzari loturiko ekimenak abiarazteko sostengua ematea.

## 3.- CUANTIA TOTAL DE LAS AYUDAS

La dotación máxima establecida para esta convocatoria alcanza la cifra de 23.500,00 euros, que será imputada a la partida presupuestaria número 41 23991 49000 del Presupuesto de Gastos del Ayuntamiento de Barañáin del año 2018.

## 3.- DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA GUZTIRA

Deialdi honetarako ezarritako gehienezko diru-saila 23.500,00 euro dira, Barañaingo Udalaren 2018. urteko Gastuen Aurrekontuko 41 23991 49000 zenbakia duen aurrekontu-partidari esleitzekoa.

## 4.- REQUISITOS

### EN CUANTO A LAS ONGDs.

Las ONGDs **implantadas en Navarra** que deseen acogerse a estas subvenciones, deberán reunir los

## 4.- BALDINTZAK

### GGKEei DAGOKIENEZ:

Diru-laguntza hauek eskuratu nahi dituzten GGKEek **Nafarroan kokatuta** egon behar dute, eta honako baldintza hauek bete behar dituzte:

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

siguientes requisitos:

- Ser personas jurídicas legalmente constituidas, de conformidad con su naturaleza jurídica, y estar inscritas en el Registro de Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo de la Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID).
- Tener sede social o delegación permanente en Navarra, que se justificará con la inscripción registral correspondiente; y **deberá** contar con base social en Navarra.
- Tener como finalidad expresa según sus estatutos, la realización de acciones de cooperación que contribuyan a elevar la calidad de vida de países en vías de desarrollo y el fomento de la solidaridad entre los pueblos.
- Carecer de fines de lucro.
- Disponer de estructura y experiencia que garantice la viabilidad de los proyectos.
- No estar incursas en el resto de prohibiciones que, para obtener la condición de beneficiario de subvenciones, se establecen en el artículo 13, apartados 2 y 3, de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Estar al corriente de las obligaciones fiscales y de Seguridad Social. En el caso de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Barañáin se comprobará de oficio, haciendo constar dicha circunstancia en el expediente. Así mismo, previamente a la propuesta de concesión, se comprobará de oficio que no tiene cantidad pendiente de pago a la Tesorería Municipal.
- No tener pendiente la justificación de importes de subvenciones recibidas en años anteriores considerando para ello la fecha de conclusión de la presentación de proyectos a la presente convocatoria.
- Contar con un socio, socia o contraparte local en la zona donde se vaya a realizar la intervención, o que la propia ONGD esté trabajando en la zona. A tal efecto, se entenderá como tal una entidad con personalidad jurídica propia, con sede en el país y delegación adecuada en la región y provincia donde se desarrolla el proyecto, y tiene la responsabilidad de la ejecución de la intervención de desarrollo.

- Pertsona juridikoak izatea, legez eratuak bere izaera juridikoaren arabera, eta inskribatuak egotea Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan.
- Nafarroako Foru Komunitatean izatea entitatearen egoitza edo ordezkaritza iraunkorra; dagokion erregistro-inskripzioa aurkeztuz ziurtatu beharko da hori, eta Nafarroan izan **beharko du** gizarte-oinarria.
- Estatutuen arabera, honako helburu zehatz hau izatea: garapen bidean diren herrialdeen bizi-kalitatea hobetzeko eta herrien arteko elkartasuna bultzatzeko lankidetza-jarduerak egitea.
- Irabazi-asmorik gabea izatea.
- Proiektuen bideragarritasuna bermatzen duten egitura eta esperientzia izatea.
- Diru-laguntzen onuraduna izateko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan ezarritako gainerako debeku-egoeretan ez egotea.
- Betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean edukitzea. Barañaingo Udalarekiko betebehar fiskalei dagokionez ofizioz egiaztatuko da hori guztia, eta espedientean jasota geratuko da egoera. Era berean, eta emakidaren proposamena egin aurretik, ofizioz egiaztatuko da ez duela zenbatekorik ordaintzeke Udalaren Diruzaintzan.
- Aurreko urteetan jasotako diru-laguntzen zenbatekoen justifikazioa ere egina izatea, deialdi honetan proiektuak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta horretarako.
- Esku-hartzea egin behar den eskualdean bertako bazkide edo partaide bat izatea, edo GGKEa bera lanean aritzea jada eskualdean. Horretarako, halakotzat joko da nortasun juridiko propioa duen entitate bat, herrialdean egoitza eta ordezkaritza egokia duena proiektua garatzen den erregioan eta probintzian, eta garapeneko esku-hartzea gauzatzeko ardura duena.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

**EN CUANTO A LOS PROYECTOS**

Los proyectos para los que se solicita subvención, deberán reunir los siguientes requisitos:

- Ser adecuados a los principios y prioridades señaladas en esta convocatoria.
- Correspondencia con los Enfoques Transversales de la Cooperación Navarra.
- Informar suficientemente de los objetivos y experiencia de trabajo de la entidad responsable de la ejecución del proyecto.
- Explicar las relaciones que va a establecer con la contraparte local o comunidad destinataria para realizar el seguimiento de la acción subvencionada.
- Los costes indirectos no podrán ser superiores al 10% del coste total de la intervención.
- La cuantía máxima solicitada por proyecto y ONGD no podrá superar los 8.000,00 euros.
- Las acciones se ejecutarán en un plazo máximo de un año a partir de la fecha de la Resolución de la Concesión de la subvención.
- Que los proyectos a desarrollar cuenten con un trabajo previo en la zona.

**5.- <u>PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACION DE SOLICITUDES</u>**

Las solicitudes de subvención se presentarán en instancia firmada por el Presidente o Presidenta de la entidad o quien tenga conferida la delegación de forma debidamente acreditada, que deberá ajustarse al modelo oficial del Ayuntamiento de Barañáin.

El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días naturales a partir de la publicación del anuncio de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Navarra. La solicitud irá acompañada de los documentos que se especifican más adelante y deberán presentarse en **formato papel y digital (formato PDF).**

Las solicitudes se presentarán en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Barañáin, de lunes a viernes de 8:30 a 14:00 horas o por cualquiera de los medios a que hace referencia el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**PROIEKTUEI DAGOKIENEZ**

Proiektuek ondoko baldintzak bete beharko dituzte, diru-laguntza jasotzeko:

- Bat etortzea deialdi honetan adierazitako printzipio eta lehentasunekin.
- Elkarrekikotasuna Nafarroako Lankidetzaren Zeharkako Ikuspegiekin.
- Proiektua gauzatzeko ardura duen erakundearen helburuei eta lan esperientziari buruz behar besteko informazioa ematea.
- Bertako partaidearekin edo jarduketaren helburu den komunitatearekin ezartzekoak diren harremanak azaltzea, diruz lagundutako ekintzaren jarraipena egiteari begira.
- Zeharkako kostuak ezin izanen dira esku-hartzearen kostu guztiaren %10etik gorakoak.
- Proiektu eta GGKE bakoitzeko eska daitekeen gehienezko diru-kopuruak ez ditu gaindituko 8.000 euro.
- Ekintzak gehienez urtebeteko epean gauzatuko dira, diru-laguntza ematen duen ebazpenaren datatik zenbatzen hasita.
- Garatzekoak diren proiektuek aurretiko lan bat izatea eremuan.

**5.- <u>ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA</u>**

Diru-laguntza eskaerak aurkeztu behar dira erakundearen Lehendakariak eta horretarako behar bezala egiaztatutako ahalmena jasota duenak sinatutako eskabide-orrian, eta Barañaingo Udalak duen eredu ofizialaren araberakoa izanen da hura.

Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea 15 lanegunekoa izanen da, deialdi honen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Eskabide-orriarekin batera aurrerago zehazten diren agiriak aurkeztu behar dira, **paperezko formatuan eta digitalean (PDF).**

Eskaerak Barañaingo Udaleko Herritarrak Hartzeko Bulegoan aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara, edo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluak aipatzen dituen bideetako edozein erabiliz.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

Cuando las solicitudes se envíen por correo, la entidad interesada deberá remitir, antes de que finalice el plazo de presentación, el resguardo correspondiente acreditando la fecha de imposición del envío en la Oficina de Correos por Fax al número 948-199871. Sin cumplir tales requisitos no será admitida la proposición en el caso en que se recibiera con posterioridad a la fecha de terminación del plazo señalado en el anuncio. No obstante transcurridos 10 días naturales desde la terminación del plazo de presentación, no será admitida ninguna proposición enviada por correo.

- Instancia general.
- Tarjeta de Identificación Fiscal.
- Estatutos de la Entidad.
- Acreditación de la inscripción en el Registro de ONGD de la Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo, con expresa mención a la apertura de delegación en el territorio de la Comunidad Foral de Navarra; la mención podrá ser sustituida por un certificado complementario de otro Registro Administrativo que avale la existencia de tal delegación o en el caso de Fundaciones de documento notarial. Dicho certificado o certificados habrán sido expedidos con menos de un año de antigüedad contado desde la fecha de publicación de esta convocatoria.
- Indicación y acreditación de quien representa legalmente a la entidad (D.N.I., pasaporte o similar).
- Documentación acreditativa de las acciones realizadas por la ONGD solicitante en el último año, especificando la cuantía económica de cada una de las acciones.
- Solicitud de abono por transferencia en la que conste número de cuenta corriente o libreta de ahorros.
- Memoria del Proyecto en impreso oficial establecido al efecto (ANEXO I y ANEXO II).
- Declaración jurada en la que se especifiquen las subvenciones solicitadas para el proyecto a otras Administraciones, entidades o personas, detallando la cantidad solicitada así como su resolución si se conocen.
- Certificación, expedida por la Administración competente, de encontrarse al corriente de las obligaciones Fiscales y frente a la Seguridad Social, que se acreditará mediante certificado del Departamento de Economía y Hacienda de

Eskaerak postaz igortzen badira, aurkezpenerako epemuga agortu aurretik, frogagiria aurkeztu beharko du erakunde interesdunak 948-199871 fax zenbakira, egiaztatuz bidalketaren data-ezarpena Posta Bulegoan. Egінbide horiek ez badira betetzen, eta iragarkian zehaztutako epemuga gainditutа jasoko balitz proposamena, ez litzateke onartuko hura. Horretaz gain, aurkezpenerako epemuga agortzen denetik zenbatzen hasita 10 egun naturaleko epea itxi eta gero, ez da onartuko postaz igorritako proposamenik.

- Eskari orokorra.
- Identifikazio fiskaleko txartela.
- Entitatearen estatutuak.
- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren GGKEen Erregistroan izena emanda dagoela dioen ziurtagiria, espresuki aipatuta ordezkaritza bat irekia dela Nafarroako Foru Komunitatean; aipamen horren ordez beste erregistro administratibo batek emandako ziurtagiri osagarria aurkezten ahalko da, ordezkaritza hori badela egiaztatzen duena, edo notarioaren agiria, fundazioen kasuan. Ziurtagiri horrek/horiek urtebete baino gutxiagoko antzinatasuna izan beharko du/dute, deialdi hau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.
- Entitatearen legezko ordezkaria nor den aipatzea eta horren egiaztagiria (nortasun agiri nazionala, pasaportea edo antzekoa).
- Diru-laguntza eskatu duen GGKEak azken urte honetan egindako ekintzei buruzko ziurtagiriak, adierazita ekintza bakoitzaren kostu ekonomikoa.
- Transferentzia bidez ordaintzeko eskaria, kontu korrontearen edo aurrezki libretaren zenbakia aipatuta.
- Proiektuaren memoria, horretarako prestatutako agiri ofizialean (I. ERANSKINA eta II. ERANSKINA).
- Beste administrazio, erakunde edo pertsona batzuei proiektua egiteari begira eskatutako diru-laguntzak zehazten dituen zinpeko aitorpena, eskatutako zenbatekoa zehaztuta, baita ebazpena ere, ezagutzen bada.
- Administrazio eskudunak luzatutako Egiaztagiria zeinetan jasoko baita betebehar fiskalak eta Gizarte-segurantzakoak egunean dituela elkarte edo entitateak; hurrenez

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

Gobierno de Navarra y de la Tesorería General de la Seguridad Social respectivamente. No obstante cuando no estén obligados a presentar las declaraciones o documentos a que se refieren las obligaciones anteriores, su cumplimiento se acreditará mediante declaración responsable, según se contiene en Anexo III.

- Documentación del Socio o socia Local que ejecuta la acción:
  - Estatutos.
  - Acreditación de su constitución legal, según las leyes propias del país beneficiario del proyecto.
  - Credencial de su representante legal.

En el caso de que el Socio Local sea una Administración Pública toda esta documentación podrá ser sustituida por una certificación de la misma en la que conste quién ostenta la representación legal y la participación de esa Administración en la intervención.

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria, se requerirá a la entidad interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de diez días naturales, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en la normativa de aplicación.

Al margen de la documentación exigida, la entidad o asociación podrá aportar cuantos documentos considere convenientes para informar sobre su proyecto.

El Ayuntamiento comprobará de oficio que la entidad solicitante se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el municipio.

Cada Entidad podrá presentar un máximo de una solicitud.

## 6.- CRITERIOS DE EVALUACION DE LAS SOLICITUDES

Realizado estudio y valoración de las propuestas presentadas por parte del Área de Servicios Sociales, éstas junto con los informes técnicos emitidos al efecto, serán elevadas para su aprobación y concesión por el órgano competente.

hurren, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamenduak eta Gizarte-segurantzaren Diruzaintza Orokorrak eginiko egiaztagirien bidez. Dena den, ez daudenean derrigortuta betebehar horiei dagozkien egiaztagiriak aurkeztera, adierazpen arduratsuaren bitartez egiaztatuko da eginbehar hori betetzen dutela (III. Eranskina hartuta eredu).

- Ekintza tokiko bazkide batek gauzatuz gero:
  - Estatutuak.
  - Legezko eraketaren frogagiriak, proiektuaren onura hartzen duen herrialdeko legeen araberakoak.
  - Legezko ordezkariaren sinestamendua.

Tokiko bazkidea administrazio publiko bat bada, dokumentazio horren guztiaren ordez, administrazio horren legezko ordezkaria nor den eta administrazio horrek esku-hartzean parte hartzen duela frogatzen duen agiria aurkezten ahalko du.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdian aipatutako baldintzak, entitate interesatuari gehienez ere hamar egun balioduneko epe luzaezina emanen zaio akatsak zuzentzeko, eta jakinaraziko dio ezen, zuzentzen ez baditu, bere eskaera ezetsiko dela. Horri buruzko ebazpena, betiere, aplikatu beharreko arauetan aurreikusitako baldintzekin emango da.

Eskatutako agiriez gain, entitate edo elkarteak egoki jotzen dituen agiri guztiak aurkezten ahalko ditu, bere proiektuaren gaineko argibideak emateko.

Udalak ofizioz egiaztatuko du eskaera egin duen erakundeak beteak dituela udalerriarekiko zerga-beharrak.

Erakunde bakoitzak eskaera bakar bat aurkezten ahalko du.

## 6.- ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Gizarte Zerbitzuen Arloak aztertu eta baloraturik entitateek aurkeztutako proposamenak, eskumena duen organoari igorriko zaizkio, horretarako emandako txosten teknikoekin batera, hark onetsi eta laguntzak eman ditzan.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

Así mismo, podrá solicitarse la incorporación del personal técnico que se considere preciso, para ayudar en el estudio y evaluación de los distintos proyectos que presenten.

Las solicitudes se valorarán independientemente en una escala de 0 a 100 puntos, debiendo alcanzar al menos 50 puntos para ser estimada.

Se tendrán en cuenta los siguientes criterios objetivos y su ponderación, y de acuerdo con toda la información solicitada en el formulario de solicitud:

- **Pertinencia institucional: 20 puntos.**

De la Entidad solicitante (hasta 11 puntos):

- Implantación en Navarra (hasta 5 puntos).
- Capacidad financiera (hasta 2 puntos).
- Capacidad estratégica (hasta 2 puntos).
- Capacidad operativa (hasta 2 puntos).

Del Socio Local (hasta 9 puntos):

- Experiencia de trabajo en el sector o en la zona de la intervención (hasta 3 puntos).
- Capacidad financiera (hasta 2 puntos).
- Capacidad estratégica (hasta 4 puntos).

- **Calidad técnica de la intervención: 50 puntos**

- Análisis del diagnóstico y de la participación: Hasta 5 puntos
- Análisis de Objetivos, Resultados y Actividades: Hasta10 puntos
- Pertinencia de los indicadores y fuentes de verificación: Hasta 5 puntos
- Recursos humanos, técnicos y económicos: Hasta 10 puntos
- Análisis de la viabilidad; cofinanciación y otras aportaciones; riesgos o factores externos: Hasta 10 puntos
- Análisis del proceso de implementación, seguimiento y evaluación: Hasta 5 puntos
- Sostenibilidad del proyecto una vez ejecutada la acción subvencionada: Hasta 5 puntos.

- **Idoneidad con los Enfoques Transversales de la Cooperación Navarra: 15 puntos.**

Era berean, egokitzat jotzen diren teknikarien esku-hartzea eskatzen ahalko da, aurkezten diren proiektuen azterketan eta ebaluazioan laguntzeko.

Eskaerak 0tik 100 puntura bitarteko eskala baten arabera baloratuko dira, eta gutxienez 50 puntu lortu beharko ditu aintzat har dadin.

Jarraian ageri diren irizpide objektiboak eta haien haztatzea hartuko dira aintzat, eskaera-formularioan eskatutako informazio guztiarekin bat:

- **Erakundeen bidezkotasuna: 20 puntu.**

Entitate eskatzailearena (11 puntu gehienez):

- Nafarroan duen ezarpena (5 puntu gehienez).
- Gaitasun finantzarioa (2 puntu gehienez).
- Gaitasun estrategikoa (2 puntu gehienez).
- Gaitasun operatiboa (2 puntu gehienez).

Tokiko bazkidearena (9 puntu gehienez):

- Lan esperientzia esku-hartzearen sektorean edo eremuan (3 puntu gehienez).
- Gaitasun finantzarioa (2 puntu gehienez).
- Gaitasun estrategikoa (4 puntu gehienez).

- **Esku-hartzearen kalitate teknikoa: 50 puntu**

- Diagnostikoaren eta parte-hartzearen analisia (5 puntu gehienez).
- Helburuen, emaitzen eta jardueren analisia (10 puntu gehienez).
- Adierazleen eta egiaztatze bideen egokitasuna (5 puntu gehienez).
- Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta ekonomikoak (10 puntu gehienez).
- Bideragarritasunaren analisia; kofinantzaketa eta beste ekarpen batzuk; arriskuak edo kanpoko faktoreak (10 puntu gehienez).
- Ezarpen prozesuaren analisia, jarraipena eta ebaluazioa (5 puntu gehienez).
- Proiektuaren iraunkortasuna behin diruz lagundutako ekintza gauzatuta: Gehienez ere 5 puntu.

- **Egokitasuna, Nafarroako lankidetzaren zeharkako ikuspegien arabera: 15 puntu.**

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

- Enfoque de Desarrollo Humano (hasta 3 puntos).
- Enfoque de Género (hasta 3 puntos).
- Enfoque de Desarrollo Sostenible (hasta 3 puntos).
- Enfoque Basado en Derechos (hasta 3 puntos).
- Enfoque de Participación y Organización comunitaria (hasta 3 puntos).

- **Grado de desarrollo del proyecto que se alcanzará teniendo en cuenta los recursos económicos con los que se cuenta y la subvención solicitada: 10 puntos.**

  Se concederán 10 puntos cuando con la subvención concedida se garantice el desarrollo íntegro del proyecto; 7 puntos cuando se garantice el desarrollo del 90% del proyecto; y 5 puntos cuando sea el 80%. Los porcentajes intermedios a los mencionados, obtendrán puntuaciones proporcionales, y por debajo del 80% no recibirán puntuación.

  Únicamente se tendrán en consideración las fuentes de cofinanciación que sean firmes en el momento de presentación del proyecto, y deberán justificarse documentalmente.

- **Integralidad e idoneidad con las áreas geográficas preferentes y con las características de la zona (subestatal) de actuación: 5 puntos.**

  –Se realiza en las zonas de menor desarrollo del país (hasta 5 puntos).

La cuantía máxima a conceder no superará el 90 % del presupuesto total del proyecto.

El reparto se hará, en función de la puntuación obtenida. Empezándose por el proyecto que haya obtenido la más alta y de forma que el saldo de la partida se irá agotando a medida que se vayan aplicando el resto de subvenciones concedidas.

Se establecerán los siguientes tramos porcentuales sobre la cuantía solicitada para el cálculo de la subvención en función de las puntuaciones obtenidas:

- Giza garapenaren ikuspegia (3 puntu gehienez).
- Genero ikuspegia (3 puntu gehienez).
- Garapen jasangarriaren ikuspegia (3 puntu gehienez).
- Eskubideetan oinarritutako ikuspegia (3 puntu arte).
- Parte-hartze eta antolaketa komunitarioaren ikuspegia (3 puntu arte).

- **Lortuko den proiektuaren garapen maila, kontuan izanda baliabide ekonomikoak eta eskatu den diru-laguntza: 10 puntu.**

  Emandako diru-laguntzarekin proiektu osoa gauzatuko dela bermatzen bada, 10 puntu emango dira; proiektuaren % 90 bermatzen bada, 7 puntu; eta 5 puntu proiektuaren % 80 denean. Aipatutako ehunekoen tartekoek proportziozko puntuak jasoko dituzte, eta % 80tik beherakoek ez dute punturik jasoko.

  Aintzat hartuko dira soilik proiektua aurkezterakoan irmoak diren kofinantzaketa-iturriak, eta agirien bitartez egiaztatu beharko dira.

- **Osotasuna eta egokitasuna, lehenetsitako geografia eremuen arabera eta jarduketaren eskualdeko (Estatu barrenekoa) ezaugarrien arabera: 5 puntu**

- Herrialdeko garapen txikieneko aldeetan egiten da (5 puntu arte).

Emango den gehienezko diru-kopuruak ez du gaindituko proiektuaren aurrekontu guztiaren % 90a.

Proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera banatuko dira diru-laguntzak, puntuaziorik altuena lortu duenetik hasita. Kontusailaren saldoa agortuz joango da, emandako gainontzeko diru-laguntzak aplikatuz doazen heinean.

Diru-laguntzaren kalkulurako, lortutako puntuen arabera, eskatutako zenbatekoaren gaineko portzentaje-tarteak finkatuko dira:

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

| Puntuación obtenida/ Lortutako puntuak | % máximo sobre importe solicitado/ Eskatutako zenbatekoaren gehienezko %a |
|---|---|
| ≥75,00 puntos/ puntu | 90% |
| ≥ 62,50 < 75 puntos/ puntu | 85% |
| ≥ 50,00 < 62,50 puntos/ puntu | 70% |
| < 50 puntos/ puntu | Quedan excluidos/ Kanpo geratzen dira |

Las cantidades resultantes a subvencionar como resultado de la aplicación de los tramos porcentuales se determinarán redondeándose la cuantía a la parte entera, sin decimales.

En el caso de que dos solicitudes tuvieran la misma puntuación final, tendrá prioridad en el orden de prelación aquella que tenga mayor puntuación en el apartado de calidad técnica del proyecto de intervención.

Portzentaje-tarteak aplikatu eta gero, ateratzen diren diruz lagundu beharreko zenbatekoak borobilduz finkatuko dira, zati osoarekiko, dezimalik gabe.

Bi eskaerak azken puntuazio bera badute, proposamen orokorraren kalitate teknikoaren atalean puntuazio handiena duena hobetsiko da lehentasun ordenan.

## 7.- GASTOS SUBVENCIONABLES: CARACTERISTICAS GENERALES

Las subvenciones concedidas al amparo de la presente convocatoria, podrán cubrir los **gastos directos e indirectos** de los proyectos o actuaciones financiados. Se entenderá por gasto indirecto, aquel propio del funcionamiento regular de la ONGD o entidad solicitante y que sirve de sostén para la posible ejecución de la intervención subvencionada en la parte en que razonablemente corresponda, de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas. Los gastos indirectos (de administración y gestión), para los que se haya obtenido la subvención no superarán el 10% del presupuesto.

Las subvenciones concedidas podrán cubrir los gastos de adquisición y transporte de materiales, suministros, equipos y otros activos productivos, así como los de personal y los de funcionamiento vinculados directamente al proyecto.

Todas las adquisiciones de materiales, equipamientos y suministros vinculados a la ayuda que se hagan con cargo a la subvención concedida, se realizarán en el país destinatario del proyecto y con productos del

## 7.- DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN AHAL DUTEN GASTUAK: EZAUGARRI OROKORRAK

Deialdi honen babesean ematen diren diru-laguntzek finantzatzen diren proiektuen edo jardueren **zuzeneko eta zeharkako gastuak** estaltzen ahalko dituzte. Zeharkako gastutzat joko da GGKE edo entitate eskatzailearen ohiko funtzionamenduari dagokiona eta, arrazoizko moduan, sostengu gisa erabiltzen dena diruz lagundutako balizko eskuhartzea gauzatzeko, betiere onartu ohi diren kontabilitateko irizpide eta arauei jarraituz. Diru-laguntzak estaliko dituzten zeharkako gastuek (administrazio eta kudeaketakoek) ez dute inola ere aurrekontuaren %10 gaindituko.

Esleitutako diru-laguntzez baliatuta, materialak, hornidurak, ekipamenduak eta ekoizpenerako bestelako aktiboak eskuratzea eta garraiatzea ordaintzen ahalko dira, baita langileen eta funtzionamenduko gastuak ere, proiektuari zuzenean lotuta badaude.

Erosten diren materialak, ekipamenduak eta hornidurak, diru-laguntzaren bidez ordainduko direnak, proiektua egiten den herrialdean eskuratu beharko dira, eta bertako produktuak erabili ere. Baldintza hori betetzerik ezinezkoa bada, egiaztatu

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

mismo. En caso de imposibilidad de cumplimiento de esta obligación, se deberá justificar y solicitar por escrito la correspondiente autorización al ayuntamiento de Barañáin.

egin beharko da, eta idatziz eskatu Barañaingo Udalari dagokion baimena.

**8.- <u>RESOLUCION DE LAS SOLICITUDES Y ABONO DE LA SUBVENCION</u>**

El área de Servicios Sociales estudiará el expediente y propondrá a Junta Local de Gobierno la aprobación y pago de la subvención que corresponda. Para ello, previamente los servicios técnicos del área de referencia deberán emitir informe de valoración de las solicitudes presentadas conforme a los criterios contemplados en los apartados anteriores. Igualmente deberá contarse con la fiscalización del gasto por el área de intervención del Ayuntamiento en impreso normalizado elaborado al efecto. Sin perjuicio de lo anterior, podrá solicitarse la incorporación del personal técnico que se considere preciso, para ayudar en el estudio y evaluación de los distintos proyectos que presenten.

El Ayuntamiento de Barañáin comunicará por escrito la resolución en la que se hará constar, en su caso, la cuantía a subvencionar, abonándose el 75% en el momento de la concesión y el 25% restante previa presentación de memoria de actividades y justificación de gasto correspondiente al 100% de lo concedido, del cual deberá estar abonado como mínimo el 75% en el momento de su presentación.

En caso de no contar con justificantes de pago del 100% del gasto, deberán aportar en el plazo máximo de un mes a partir de la recepción del 25% de subvención, los justificantes de abono de dicho importe.

**8.- <u>ESKAEREN EBAZPENA eta DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA</u>**

Gizarte Zerbitzuen arloak espedientea aztertu eta Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dio hura onestea eta dagokion diru-laguntza ordaintzea. Horretarako, erreferentzia-arloko zerbitzu teknikoek aurkeztutako eskaeren balorazio-txosten bat egin beharko dute aurretik, aurreko ataletan aurreikusitako irizpideekin bat. Orobat, Udalaren Kontu-hartzailetzaren arloak gastuaren fiskalizazioa eginen du horretarako prestatutako inprimaki normalizatu batean. Aurrekoa alde batera utzi gabe, egokitzat jotzen diren teknikarien esku-hartzea eskatzen ahalko da, aurkezten diren proiektuen azterketan eta ebaluazioan laguntzeko.

Barañaingo Udalak idatziz jakinaraziko du ebazpena, eta bertan diru-laguntzaren kopurua jasoko da, bere kasuan. Diru-laguntzaren %75 hura onetsi eta orduantxe ordainduko da. Gainerako %25a jardueren memoria eta emandakoaren %100ari dagokion gastua justifikatu ondoren ordainduko da –gutxienez, horren %75 ordainduta egonen da aurkezten den unean– .

Gastuaren %100aren ordainagiriak izan ezean, zenbateko hori ordaindu izanaren ordainagiriak aurkeztu beharko dira, gehienez hilabeteko epean, diru-laguntzaren %25 jasotzen denetik.

**9.- <u>MEDIO DE NOTIFICACION O PUBLICACION</u>**

La resolución de concesión, que pondrá fin a la vía administrativa, será notificada a los solicitantes de conformidad con lo prescrito en la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**9.- <u>JAKINARAZTEKO edo ARGITARATZEKO BIDEA</u>**

Diru-laguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio bideari, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeak agindutakoarekin bat jakinaraziko zaie eskatzaileei.

**10.- <u>OBLIGACIONES DE LA ONGD O ENTIDAD BENEFICIARIA</u>**

Sin perjuicio de las obligaciones contempladas en la Ordenanza reguladora para la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Barañáin, serán

**<u>10.- GGKE EDO ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK</u>**

Barañaingo Udalaren diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailearen betebeharrak alde batera utzi gabe, honako hauek ere bete beharrekoak izanen

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

obligaciones de las ONGDs o Asociaciones beneficiarias las siguientes:

- Ejecutar el proyecto en los términos expresados en su solicitud.
- Justificar ante el Ayuntamiento de Barañáin el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad subvencionada, y el cumplimiento de la finalidad que determinó la concesión de la subvención, mediante el correspondiente informe y justificación de gastos señalados en la presente convocatoria.
- Colaborar en las acciones de difusión y sensibilización en el municipio que el ayuntamiento pudiera proponer.
- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto se conozca y en todo caso, en el momento de la justificación de la aplicación de fondos recibidos.
- Informar al Ayuntamiento de Barañáin de los cambios habidos durante el desarrollo del proyecto en la personalidad jurídica de la ONGD solicitante: estatutos, representante legal,…
- Comunicar y solicitar, en su caso, la autorización pertinente de todas las alteraciones que se produzcan en las circunstancias, requisitos y condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención.
- Todas las adquisiciones de materiales, equipamientos y suministros vinculados a la ayuda que se hagan con cargo a la subvención concedida, se realizarán en el país destinatario del proyecto y con productos del mismo. En caso de imposibilidad de cumplimiento de esta obligación, se deberá justificar y solicitar por escrito la correspondiente autorización al ayuntamiento de Barañáin.

## 11.- MODIFICACIONES SUSTANCIALES

Cuando durante la ejecución del proyecto se manifiesten circunstancias que alteren o dificulten gravemente el desarrollo del mismo, se considerarán modificaciones sustanciales solamente aquellas que afecten a los objetivos del mismo, a la población beneficiaria, a la ubicación territorial, al socio o socia local y a diferencias presupuestarias entendiendo por

dira GGKE edo erakunde onuradunentzat:

- Proiektua eskabidean azaldutakoarekin bat egitea.
- Barañaingo Udalaren aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, diruz lagundutako jarduera egin dela eta diru-laguntza zertarako den eta helburu hori bete dela, horretarako aurkeztuta gastuen justifikazioa eta txostena, deialdi honetan adierazitakoa.
- Udalak herrian proposatu ditzakeen zabalkunde eta sentsibilizazio jardueretan laguntzea.
- Diru-laguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori jakin bezain azkar egin beharko da, eta, edonola ere, jasotako funtsen erabileraren justifikazioa egin baino lehen.
- Barañaingo Udalari jakinaraztea proiektua garatzen ari den bitartean GGKE eskatzailearen nortasun juridikoan gertatu aldaketa guztiak: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria eta abar.
- Jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren funtsezko aldaketa guztiak, eta, behar izanez gero, aldaketa horietarako baimen zehatza eskatzea aldez aurretik.
- Erosten diren materialak, ekipamenduak eta hornidurak, diru-laguntzaren bidez ordainduko direnak, proiektua egiten den herrialdean eskuratu beharko dira, eta bertako produktuak erabili ere. Baldintza hori betetzerik ezinezkoa bada, egiaztatu egin beharko da, eta idatziz eskatu Barañaingo Udalari dagokion baimena.

## 11.- FUNTSEZKO ALDAKETAK

Proiektua gauzatzerakoan, haren garapena nabarmen aldatzen edo zailtzen duten inguruabarrak gertatzen badira, funtsezko aldaketatzat jotzeko, honako hauetan izan beharko dute eragina: helburuetan, onura hartzen duen populazioarengan, lurralde-kokapenean, tokiko bazkidearengan edo, hasierako aurrekontuarekin edo berregindakoarekin alderaturik,

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)
Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

éstas exclusivamente aquéllas que supongan un presupuesto inferior respecto a aquél que presentaron en su solicitud inicial o en la reformulada, o que las desviaciones entre las diferentes partidas no superen un 20%.

Para proceder a dichas modificaciones será necesaria la presentación al Ayuntamiento de solicitud motivada en un plazo no superior a dos meses desde su conocimiento, así como la correspondiente aprobación por el órgano municipal competente.

El resto de incidencias y modificaciones que se produzcan durante la ejecución de las acciones se comunicarán en el informe final.

## 12.- JUSTIFICACION DEL GASTO REALIZADO

Quien se beneficie de la subvención deberá justificar su aplicación en el plazo máximo establecido en este mismo apartado, mediante la presentación de la siguiente documentación **(en formato PDF en papel y digital)** en la Oficina de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Barañáin de lunes a viernes de 8:30 a 14:00 horas o por cualquiera de los medios a que hace referencia el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La cuenta justificativa contendrá la siguiente información:

a) Declaración responsable, firmada por la representación legal de la entidad beneficiaria, de que son ciertos todos los datos contenidos en la documentación que compone el informe final presentado.
b) Documentación que acredite los envíos al socio o socia local de fondos y tipos de cambio aplicados para el caso de envío por transferencia bancaria; en otros casos mediante declaración responsable firmada por la representación legal de la ONGD beneficiaria de la subvención.
c) Documentación que acredite la recepción por parte del socio o socia local de fondos, acompañada por los documentos bancarios en los que consten los tipos de cambio aplicados para el caso de recepción por transferencia bancaria.
d) En los casos de cambios a moneda local, documentos bancarios acreditativos de los tipos de cambio.

hasierako eskaeran baino aurrekontu gutxiago ekartzen dutenetan, edo kontusail ezberdinen arteko desbideratzeek % 20 gainditzen duten haietan.

Aldaketa horiek egin ahal izateko, hori arrazoitzen duen eskaera aurkeztu beharko da Udalean bi hilabete baino gutxiagoko epean ezagutzen denetik, eta, halaber, eskumena duen udal organoak onetsi beharko du.

Jarduerak gauzatzean gertatzen diren gainerako gorabeherak eta aldaketak azken txostenean jakinaraziko dira.

## 12.- EGINDAKO GASTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Onuradunak egiaztatu beharko du jasotako diru-laguntza haren funtsa den jarduera egiteko erabili dela atal honetan ezarritako epe maximoaren barnean; horretarako, jarraian ageri den dokumentazioa **(PDF formatuan, paperean eta digitalean)** aurkeztu beharko du Barañaingo Udalaren Herritarrak Hartzeko Bulegoan, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:00etara, edo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluak aipatzen dituen bideetako edozein erabiliz.

Memoria horretan honako hauek jasoko dira:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinetan jasotzen baita aurkeztutako azken txosteneko agirietako datu guztiak egiazkoak direla, entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta.
b) Banku-transferentzia bidez bidalitako kasuetan, dokumentazioa zeinak egiaztatzen baititu tokiko bazkideari bidalitako funtsak eta aplikatutako truke-tasak. Bestelakoetan, diru-laguntzaren GGKE onuradunaren legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez.
c) Dokumentazioa zeinak egiaztatzen baitu tokiko bazkideak funtsak jaso dituela, baita banku-agiriak ere zeinetan jasotzen baitira aplikatutako truke-tasak banku-transferentzia bidez jasotako kasuetarako.
d) Tokiko txanponera egin beharreko trukeak direnean, dokumentazioa zeinetan jasoko baitira truke-tasen egiaztagiriak.

Pza. de la Paz Nelson Mandela, s/n.
Nelson Mandela Bake plaza zk.g.
31010 Barañáin (Navarra – Nafarroa)

Telf.: 948 19 98 70
Fax: 948 19 98 71

e) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Por ejemplo, objetivo inicial, incidencias destacables, logro de objetivos, número de personas beneficiadas, dificultades, conclusiones en relación al tratamiento de la perspectiva de género... Los datos hay que desagregarlos por sexo.

f) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

g) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

**Será necesario presentar el Anexo V** Cuadro de gastos e ingresos reales del proyecto.

h) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

El órgano concedente comprobará, a través de las técnicas de muestreo los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención, a cuyo fin podrá requerir al beneficiario la remisión de los justificantes de gasto seleccionados.

La justificación de la aplicación de la subvención se realizará como máximo en los dos meses siguientes a la finalización del proyecto, que deberá de ejecutarse en un período máximo de un año desde la resolución de la subvención. Excepcionalmente y previa presentación de instancia de solicitud antes de la finalización del plazo máximo mencionado, se extenderá si así lo resuelve el órgano municipal competente para aquellos proyectos que no se hayan podido ejecutar en los plazos previstos por causas justificadas, así como aquellos otros cuya duración así lo requieran.

Cuando en las labores de comprobación se aprecie la existencia de defectos subsanables en la documentación presentada por el beneficiario o la beneficiaria se pondrá en su conocimiento concediéndole un plazo de diez días naturales para su

e) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete dituela frogatzeko jarduketa-memoria bat, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azalduko dituena. Adibidez, hasierako helburua, gorabehera nabarmenak, helburuen lorpena, zenbat onuradun dauden, zailtasunak, genero-ikuspegiaren tratamenduari dagozkion ondorioak... Datuak sexuaren arabera bereizita aurkeztuko dira.

f) Jarduerak eragindako gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, non ondokoak identifikatuko baitira: hartzekoduna, agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta, jada ordaindua izanez gero, ordainketa-data. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen bada, desbideratu dena adieraziko da.

g) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerak edo diru-laguntzak xehe-mehe adierazita, horien zenbatekoa eta jatorria barne.

**Ezinbestez aurkeztu behar da V. Eranskina:** proiektuaren egiazko gastu eta diru-sarreren taula.

h) Halakorik balitz, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien interesak itzuli izanaren ordainketa-agiria.

